EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

LABORAL kutxa

PRENTSA OHARRA

# Teresa Catalán, Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2022

- *Bere curriculum zabal eta bikainak, bere izena kokatzen lagundu du nazioarte mailan, sorkuntzan ez ezik, akademiaren alorrean ere egindako ekarpena nabarmentzen da.*

- *Gazteei zuzendutako deialdian, Imanol Zubiauz gazte gipuzkoarrak "Pidgin" lanarekin eskuratu du Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxa Gazte Saria.*

**Donostia, 2022ko maiatzak 5**. Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak aditzera eman dute gaur Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxaren Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Sariaren eta Gazte Sariaren 2022ko epaia.

Edizio berri honetan Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxaren Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria Teresa Catalanek eskuratu du. Hala ebatzi du sariaren epaimahaia osatzen duten Eusko Ikaskuntzaren eremu geografikoko zazpi unibertsitateetako eta Musikeneko ordezkariek, baita Eusko Ikaskuntza eta LABORAL Kutxako ordezkariek ere. Catalán konposizio garaikideko egile ospetsu eta garrantzitsuenetako bat da gure herrian. Gainera, egitate musikalaz duen ikuskeragatik eta kulturarekin duen konpromisoagatik, erreferente da etikan eta irakaspenean. Sortzaile gisa, talentuaren eta zintzotasun artistikoaren uztarketak bakarrik ahalbidetzen duen estilo propioa lortu du.

Teresa Catalán konposizioko lehenengo emakume katedraduna izan da Espainiako musika-hezkuntzaren historian, eta hainbat musikari-belaunaldi trebatu ditu etengabeko bilaketan, hobekuntzan eta lanbidearen zehaztasunean. Hori dela eta, haren katedra erakargarritasun handikoa izan da era guztietako ikasleentzat.

Era berean, konpositore eta irakasle gisa musikari eskaini dion dedikazio multiforme eta askotarikoagatik nabarmentzen da. Jarduera asko eta asko sustatu ditu sorkuntza garaikidea zabaltzearen alde,

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

ikasle eta lankideen lana barne. Betiere interes kolektiboa distira pertsonalaren aurretik jarrita.

Azkenik, epaimahaiak azpimarratu nahi izan du sarituak konposizioan, hezkuntzan, sustapenean eta kudeaketan egin duen ibilbide luzea, izan ere, epaimahaiak azpimarratu du "eskarmentu horrek ikuspegi pribilegiatua eman dio, kulturak eta, zehazki, musikak hazkunde pertsonalerako eta bizi-kalitate kolektiborako duen garrantziari buruz. Nafarroako Kulturaren Kontseiluko partaide izanik, agerikoa da Teresa Catalánentzat kulturarekiko konpromisoa gure gizartearekiko konpromisoa dela".

**Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte saria**

Arte Ederretan doktore den Imanol Zubiauz izen artistikoa duen 32 urteko gazteak lortu du aurtengo Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxa Gazte Saria "Pidgin" proiektuarengatik. Balearen harrapaketaren garaian kokatuta, euskal eta islandiar herrien arteko loturak aztertuko ditu lanak.

Ikerketa artistikoari, antropologikoari, identitateari eta memoria kolektiboari lotuta dagoen proiektua da "Pidgin", izan ere, izen horrekin ezagutzen dira harremanik gabeko bi hiztun komunitatek elkar ulertzeko sortzen duten hizkuntzari.

Elkarren arteko merkataritza ahalbidetzeko, bi kulturen loturak, euskararen eta islandieraren arteko proto-hizkuntza bat sortu zuten. "Horren adierazle, aurkitutako 700 hitz inguru dituzten bi eskuizkribu daude", argitu du epaimahaiak. Euskararen erabilera, islandierarekin sortutako hizkuntza berrian, eta itsas-kultura dira proiektuaren ardatz nagusiak eta bere ikerketa aintzineko dokumentuak berreskuratzeaz gain, erreproduzio berriak (audioak eta pieza grafikoak) landuko ditu eta berariaz sortutako euskarrietan aditzera emango da. Hori guztia, gainera, garai hartako fikziozko marinel batek bizi izandako bizipen eta oroitzapen forman gogora ekarriko du. Sariari esker, lana egiteko 6.000 eurotako ordainsaria jasoko du.

Imanol Zubiauz Zumarragan jaio zen. Arte Ederretan Doktore, Cum Laude aipamena jaso zuen 2020an, eta Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa Masterra da. Goi-mailako ikasketak ere baditu

irakaskuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan. Ikerlan eta hainbat argitalpenen egilea da. Hala, epaimahaiak azpimarratu nahi izan du artista gaztearen formakuntza zabala eta ibilbide artistiko oparoa.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

# EUSKO IKASKUNTZA — LABORAL KUTXAREN HUMANITATE, KULTURA, ARTE ETA GIZARTE ZIENTZIA SARIA 2022

**TERESA CATALÁN SÁNCHEZ** (Iruñea, 1951) Artearen Filosofian Doktore da Valentziako Unibertsitatean, Unibertsitate hartan bertan Estetika eta Sormenean Masterra eta Konposizioan eta Pianoan goi mailako tituluak ditu. Konpositore gisa egiten duen lanaz gain, Madrilgo Goi-mailako Kontserbatorio Errealean Musika Konposizio Katedradun emeritu da eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Musika eta haren zientzia eta teknologia doktorego-programako Batzorde Pedagogikoko kide.

Lan horren aurretik, Zaragozako Goi-mailako Kontserbatorioko irakasle izan zen eta horrekin batera errektoreorde (1995-97) eta Musikaren Zuzendaritza Konposizio eta Teoria Saileko buru (1997-98). 1990 eta 1992 artean, Tarazonako (Zaragoza) Estatuko Musika Kontserbatorioa zuzendu zuen.

Konpositore gisa, orkestrarako, antzerkirako, pianorako, bakarkako beste instrumentu batzuetarako, ganbera-musikarako eta korurako obrek osatzen dute bere katalogoa. Catalánek konpositore gisa egindako lana (korala, ahots-musika, ganberakoa eta orkestrakoa) jaialdi garrantzitsuenetan eta hainbat herrialdetan programatu dute (AEB, Frantzia, Alemania, Italia, Kuba eta abar). Euskadiko eta Nafarroako orkestra sinfonikoen, jaialdi ugariren, fundazioen, kontserbatorioen eta irakaskuntza-erakundeen enkarguak jaso ditu.

Teresa Catalánek era askotako jarduerak egin ditu musikaren alorrean. Hogei bat diskoren grabazioan parte hartu du, eta liburu eta aldizkari espezializatuetan argitaratutako lan zabalaren egilea da, baita hedabideen bidez musika dibulgatzaile aktiboa ere. Nabarmentzekoak dira Iruñeako Taldea Musikagileak deiturikoaren fundatzaile izan zela, zeinarekin musikaren zabalkuntzan eta sormenean lan eskerga egin zuen. Gainera, Nafarroako Gobernuko Kultura Kontseiluko, Musikako Kontseilu Nazionaleko, Kultura eta Kirol Ministerioko Kontseilu eta Teatro Realeko Kontseiluko kide da.

Lortu dituen sarien artean, hauek nabarmendu daitezke: Kulturaren Vianako Printzea Saria (2021); Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalaren ibilbide profesionalaren saria (2019); Kultura Ministerioaren Musika Sari Nazionala Konposizioaren espezialitatean (2017); Musikaren Europako Urtea Saria Nafarroako Gobernuaren Musika Konposizioan (1985); Nafarroako Gobernuaren Musika Konposizioko Remacha Saria (1984); Iruñeko Udalaren eta Pablo Sarasate Kontserbatorioaren Musika Interpretazioko Paulino Caballero Saria (1984).

http://www.teresacatalan.com/

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

LABORAL kutxa

NOTA INFORMATIVA

# Teresa Catalán, Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2022

- *Su extenso y brillante currículo ha contribuido a situar su nombre a nivel internacional, destacando su contribución no sólo en el ámbito de la creación, sino también en el académico.*

- *En la modalidad dirigida a jóvenes, el premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria ha reconocido el proyecto "Pidgin" de Imanol Zubiauz.*

**Donostia-San Sebastián, 5 de mayo de 2022.** Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa han dado a conocer hoy el fallo del Premio Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales, así como del Gazte Saria, en su edición de 2022.

En este año el Premio Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxa al mejor currículo en Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales ha recaído en Teresa Catalán. Así lo ha decidido el jurado conformado por las y los representantes de las siete universidades del ámbito geográfico de actuación de Eusko Ikaskuntza y Musikene, así como la representación de Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa. Catalán es una de las personalidades más relevantes de la composición contemporánea en nuestro país. Y por su concepción del hecho musical y por su compromiso con la cultura, constituye además un referente ético y de magisterio. Como creadora, ha conseguido alcanzar lo que solo el talento y la honestidad artística combinados procuran, un estilo propio.

A juicio del jurado, "Es la primera mujer catedrática de composición en la historia de la educación musical en España. Teresa Catalán ha formado a generaciones de músicos en la búsqueda constante, en el perfeccionamiento y en el rigor del oficio. Este es el motivo por el que su cátedra ha ejercido como importante foco de atracción para todo tipo de alumnos y alumnas".

Además de como compositora y como docente, Teresa Catalán destaca por su dedicación multiforme y plural a la música. Innumerables son

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

las actividades que ha promovido en favor de la difusión de la creación contemporánea en general, y de la obra de sus discípulos y colegas en particular. Anteponiendo siempre el interés colectivo al brillo personal.

Por último, el jurado ha querido destacar la larga trayectoria en la composición, en la formación, la promoción e incluso en la gestión de la premiada. En este sentido, el jurado ha subrayado que "dicha experiencia le otorga una visión privilegiada de lo que supone la cultura, y en concreto el arte musical, para el crecimiento personal y para la calidad de vida colectiva. Su participación en el Consejo Navarro de Cultura da prueba de que su compromiso con la cultura supone para Teresa Catalán un ejercicio de compromiso con nuestra sociedad."

**Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte saria**
El joven Imanol Zubiauz, doctor en Bellas Artes, de 32 años, ha sido galardonado esta edición con el Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria por su proyecto "Pidgin". Situado en la época de la captura de la ballena, el trabajo analizará las conexiones entre los pueblos vasco e islandés.

"Pidgin" es un proyecto ligado a la investigación artística, antropológica, la identidad y la memoria colectiva. Pidgin es precisamente el nombre con el que se conoce la lengua que dos comunidades de hablantes sin relación crean para entenderse.

Para posibilitar el comercio mutuo, fruto del vínculo de ambas culturas, crearon una proto-lengua entre el euskera y el islandés. "Prueba de ello son dos manuscritos con cerca de 700 palabras encontradas", ha aclarado el jurado. El uso del euskera, en la nueva lengua surgida junto a la islandesa, y la cultura marítima son los ejes que sustentan el proyecto. La investigación, además de recuperar documentos antiguos, trabajará en nuevas reproducciones (gráficas y de audio) y se exhibirá en soportes creados específicamente para el proyecto. Todo ello será rememorado en forma de vivencias y recuerdos vividos por un marinero ficticio de la época. El Premio Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxa Gazte Saria supone una remuneración de 6.000 euros.

Imanol Zubiauz nació en Zumarraga. Doctor en Bellas Artes, recibió la mención Cum Laude en 2020 y es Máster en Arte Contemporáneo

Tecnológico y Performativo. También tiene estudios superiores en el ámbito de la enseñanza y en la enseñanza de idiomas. Es autor de trabajos de investigación y de diversas publicaciones. En este sentido, el jurado ha querido destacar la amplia formación del joven artista y su dilatada trayectoria artística.

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

LABORAL kutxa

# PREMIO EUSKO IKASKUNTZA — LABORAL KUTXA DE HUMANIDADES, CULTURA, ARTES Y CIENCIAS SOCIALES 2022

**TERESA CATALÁN SÁNCHEZ** (Pamplona, 1951) es Doctora en Filosofía del Arte por la Universidad de Valencia, Master en Estética y Creatividad por la misma Universidad, y posee títulos superiores de Composición y Piano. Actualmente es Catedrática Emérita de Composición Musical en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid, y miembro de la Comisión Pedagógica del Programa de doctorado *Música y su ciencia y tecnología* en la Universidad Politécnica de Madrid.

Impartió anteriormente en el Conservatorio Superior de Música de Zaragoza, donde también desempeñó como vicedirectora (1995-97) y jefa del Departamento de Dirección, Composición y Teoría de la Música (1997-98). Entre 1990 y 1992 dirigió el Conservatorio Estatal de Música de Tarazona (Zaragoza).

Como compositora, su catálogo está integrado por obras para orquesta, teatro, piano solo, otros instrumentos a solo, música de cámara y coro. Ha sido programada en los más importantes festivales y en numerosos países (Estados Unidos, Francia, Alemania, Italia, Cuba, etc.). Ha recibido encargos de orquestas como las sinfónicas de Euskadi y de Navarra, de numerosos festivales y de fundaciones, conservatorios e instituciones docentes.

Teresa Catalán ha realizado las más variadas actividades dentro del campo musical. Ha participado en la grabación de una veintena de discos, y es autora de una amplia obra publicada en libros y revistas especializadas, así como activa divulgadora musical a través de los medios de comunicación. A destacar que fue fundadora del Grupo de Pamplona de Compositores / Iruñeako Taldea Musikagileak, con el que desplegó un intenso trabajo de difusión y creación musical. Es además miembro del Consejo de Cultura del Gobierno de Navarra, del Consejo Nacional de la Música, del Consejo del Ministerio de Cultura y Deportes y del Consejo del Teatro Real.

Entre los muchos reconocimientos que acumula destacan: Premio Príncipe de Viana de la Cultura (2021); Premio a la trayectoria profesional del Conservatorio Profesional Pablo Sarasate (2019); Premio Nacional de Música del Ministerio de Cultura en la especialidad de Composición (2017); Premio Año Europeo de la Música de Composición Musical del Gobierno de Navarra (1985); Premio Remacha de Composición Musical del Gobierno de Navarra (1984); Premio Paulino Caballero de Interpretación Musical del Ayuntamiento de Pamplona y el Conservatorio Pablo Sarasate (1984).

http://www.teresacatalan.com/

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)